



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015/03/11

BILERA ZENBAKIA: 3

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Haurrak (4), Unai, Mattin, Josu, Julen, Aitor, Amaia, Rut, Maite, Ainara, Rosi, Ekaitz eta Joxe Luis.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Kultur ekintzen errepassoa.

Martxoak 14ean Mintzalagun taldeak eta Korrika batzordeak antolaturik Sagardotegira irteera dagoela adierazten da, azpimarratuz jende gutxi apuntatu dela. Ikusi da denbora gutxian Errioxara bidai bat, Sagardotegira beste irteera bat dagoela antolatuta eta oso jarraian izanik, ekintza honi eragin ote dion aurreritzia dago.

Martxoak 17an HITZALDIA.

Martxoak 18an KORRIKA dokumentala kulturgunean. Ordizian Korrikako afaria.

Martxoak 22an korrika pasako dela eta, 19:00tan Pintxo-Triki-Poteoa Arbel-Aitz, Nautiko, Jubilatu eta Kaxintane bitartean. Ondoren 00:10etan Korrikara.

Martxoak 25ean KORRIKA TXIKIA, 16:00etan Herri Eskolatik irten eta plazaraino. Lekukoa Aramakoei eskatu behar zaie, Joxe Luis arduratuko da.

2. Herriko Festei buruzko hausnarketa.

- Lehendabizi Ainarak gaur arratsaldean herriko hurrekin hausnarketa egin duela eta 4 haur etorri dira beraien iritzia ematera. Beraien eskaeren artean, Pailazoak aldatzea, puzgarriak handiagoak eta egun gehiagotan, e.a. eskatzen dituzte.
- Gaztelekuko nerabeek ere aurreko egunetan nolako festak nahi lituzketen aztertzen ibilira dira. Horretarako aurreko urteetako



argazki, programa e.a. aztertzen ibili ondoren, zehazten dute lehen egiten ziren ekintza batzuk berreskuratzea gustatuko litzaiekela (asto karrera, e.a.) eta ikusi dutela orduan jende gehiago biltzen zela eta beraien ustez jendeak gehiago parte hartzen zutela.

- Urkiko jaietako batzordeak ere bere hausnarketa egin zutela adierazten du Joxe Luis-ek, eta beraiek orain artean bezala jarraitzearen aldeko apustua egiten dutela. Urkiko jaien muina erromeri giroko jaiak izan direnez eta horri eustea dutelako oinarri. Itsasondoko herritarrak nola hurbildu arazi Urkira, erantzunik gabeko galdera bezala geratzen da.
- Itsasondoko festei buruzko hausnarketa egiten dugu, adieraziz, gaur jende gutxi elkartu garela, (jubilatutako elkartekoak eta Arbel-aitz elkartekoak etortzerik ez dute izan) baina gauza bat argi geratu zaigu, azkeneko urtetako jaiak zerbait izan badira, parte hartzaileak izan direla. Ekintza guztietan jendeak parte hartu izan duelako. Arazo ikusten da, kultura batzordea, jendez urri dugun taldea dela eta jai batzorde bat sortzeko lana egin beharra dagoela. Maiatzerako nahi da Jai Batzordea sortu, eta horretarako gaztelekuko nerabeak prest agertu dira kanpaina bat egiteko, herrian galdera ironiko batzuk jarriaz, ea jendea batzorde horretara etortzea animatzen dugun.
- 20:30ak aldera bilera amaiturik eman dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?

HURRENGO BILERA
Hurrengo bilera, Apirilean egingo dugu. Gai ordena: <ol style="list-style-type: none"> 1. Kultur ekintzei buruzko informazioa. 2. Uda Kanpaina